

MITXELKO URANGA

MISENTROPIA

KAOSA ETA ORDENA



MIGUEL DE UNAMUNO
XVII. SARIA
BILBOKO UDALA

erein

MisEntropia
Kaosa eta ordena

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Bilboko Udalak antolatutako Miguel de Unamuno XVII. Saiakera Lehiaketaren 2016ko deialdiaren euskarazko saria jaso du. Liburu hau Bilboko Udalak argitaratua izan da.

1. argitalpena: 2017ko irailean

Azaleko irudia:

Mixelko Uranga

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Mixelko Uranga

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-241-4

L. G.: SS-955/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

MisEntropia
Kaosa eta ordena

Mitxelko Uranga

Bilboko Udaleko Miguel de Unamuno XVII. Saria



Edu Apodaka eta Joseba Gabilondori,
bazkari *barbaro* horiengatik

AURKIBIDEA

AITZINSOLASA	11
Hitz-jokoa	11
Kaosa eta ordena	13
SARRERA	17
Zirkuluak eta zuzenak	17
Ordena eta natura	21
Baikortasuna eta ezkortasuna	26
Misentropia eta misantropia	28
ENTROPIA	33
Antropozenoa eta antropizazioa	33
Panteismo atea	40
Joerak	46
MISENTROPIA	53
Eko-ezintasuna	53
Hiperkapitalismoa	60
Giza ezintasuna	63
Armagintza eta gerrak	71
Exodoen amaiera	77
Likantropia	83
Homeostasia	91
Esklabotza	97
Sexualitatea	100
Emakumea	102
Betiereko bakea	106
Bidegabekeria, zapalkuntza, menderakuntza...	112
MISANTROPIA	117
Natura-nahia eta gardentasuna eza	117
Animalia, gizakia eta gaingizakia	122
Krisia eta perspektiben irekiera	125
Harezko aurpegiak itsasertzean	128
Erregela berriak	130
Animaltasuna	133
ETA ORAIN ZER?	137
BIBLIOGRAFIA	155
<i>EPAIMAHAIAREN AKTA</i>	159

AITZINSOLASA

Hitz-jokoa

Lan honen izenburuan *Misentropia* irakurri duzu, bai; ez dago inolako akatsik, ordea. Neologismoa duzu, polise-mikoa gainera, irakurketa anitz izan baititzake. Azalpen sakonik gabe, lehenengo hurbilketa batean, erraz ondorioztatu dezake irakurleak hitz honekin entropiarekiko gorrotoa adierazi daitekeela, *miso-* aurrizki greziarrak gorrotoa adierazten baitu (mis-entropia). Haatik, neologismoa hitz-jokoa ere izan daiteke, *misanthropia* eta *entropia* hitzen arteko lotura. Zein da, beraz, ume-joko honen ondorioa? Zer da hitz-joko honekin adierazi nahi dizuedana? Joan gaitezen urratsez urrats.

Misanthropia hitzak jatorri etimologiko greziarra du, eta jatorri bereko bestelako bi hitzek osatzen dute: *miso* (nik gorroto dut) eta *anthropos* (gizakia). Erraz asko ondorioztatu daiteke bien arteko baturak adierazi beharrekoa, gizateriarekiko gorrotoa edo ezinikusia, alegia. Horrenbestez, misantropoak gizakia eta gizateriarekiko gorroto edo antipatia adierazten du, beti ere *ideia* gisa, inolaz ere gizaki partikular jakin batzuekiko soilik (azken hau jarrera aski gizatiarra da). Jarrera misantropikoa ezin liteke modu bakarrean ulertu, ostera, graduak eta graduak bereizi baitaitezke. Mutur batean kritika sozialera murrizten den jarrera xume edo xaloa dago; bestean, gizateriaren suntsipena edota norberaren suntsipena edo auto-suntsipena xede duen jarrera bortitza. Ahaztu barik, noski, misantropia

patologia gisa. Hitzak hartu ditzakeen zentzuak ere ez dira gutxi, hortaz.

Entropia hitza ez da horren ulerterraza, ordea. Jatorri etimologikoari erreparatuz gero, Grezian iltzatu beharko genituzke begiak berriz ere “buelta ematea” edota “eraldaketa” adierazten duela jakiteko. Zentzu zabal eta orokor honetan erabili ohi den arren, *entropia* hitza hamaika arlo bereizitan erabili ohi da zentzu ezberdinekin (fisika, kimika, hizkuntzalaritza edo filosofia, besteak beste), zeintzuen artean, ziurrenik, termodinamikan izan duen oihartzun handien. Batetik, entropia termodinamikako magnitude eza-guna da, beraz, zeinen bitartez sistema baten baitako energia ez-erabilgarria neurtu daitekeen; sistema baten ordena-eza neurtzeko ere erabili ohi da; kimikan nahasketa baten elementu eratzailak neurtzeko erabili ohi da, non zenbat eta handiagoa izan entropia orduan eta errazagoa den elementuen arteko nahasketa; informazioari dagokionez, entropia mezu aniztasunaren aurrean sortzen den zalantza neurtzeko erabili ohi da; eta, azkenik, hizkuntzalari-tzan mezuen interpretazio posibleak murriztu eta argitu ahal izateko erabili ohi da. Erabilerak ugariak dira.

Zer da, beraz, *misentropia*? Zer izan daiteke? Arestian esan dut neologismoak zenbait zentzu har ditzakeela eta, horrenbestez, honako adierak har ditzake, besteak beste, hainbat irakurketari irekita baitago: 1. Entropiari gorrotoa, dena bere horretan mantentzeko grina, aldaketa edo iraultzarik nahi ez izatea. 2. Gizateria eta Gizakiarekiko sentitzen den antipatia edo higuinagatik horien gaintitza edo eraldaketaren beharraren aldarria.

Esandako guztiarekin, argi dago lan honek, besteak beste, Gizakia izango duela hizpide, bereziki eta nagusiki

honek sortzen dituen sentimenduak eta azken hauek eragindako ondorioak; baina, ez bakarrik. Azpituduluak argizpiren bat ematen digu zentzu honetan. Azal dezadan hobeto.

Kaosa eta ordena

Horixe bera duzu, irakurle, lan honen azpi-izenburua: kaosa eta ordena. Alabaina, zer da hitz hauen bidez hemen adierazi nahi dudana? Zein da izenburuarekin duen harremana?

Kaos hitzak, grezierako *cháos* hitzetik eratorria, “irekiera” edo “zuloa” adierazten du zentzu etimologikoan. Ez da, ordea, zentzu bakarra, aipatuaz gain “forma-eza”, “desordena” edota “nahasmendua” ere adierazi ohi baitu. Adiera hauek guztiak, noski, zentzu ezkor edo negatiboan ulertu ohi dira edo, bestela, ordena edo ezarria dagoenaren aurkako ekintza oro izendatzeko ere erabili dira; hots, anomaliari atxikirik joan ohi da *kaos* hitza. Izan ere, fisikan ere, kaosa sistema dinamikoen itxurazko joera alde-erri eta iragarrezina izendatzeko erabili ohi da.

Kaosa, esan bezala, ordenaren aurkakoa da, oro har. Ordenak, bere aldetik, eta zentzu arruntan, gauzen jarraipen logikoa, gauzak egiteko araua, gauzen elkarren arteko kirin-kiria edota gauzak dagozkien tokian daudenean adierazi ohi du; eta, horrenbestez, ordena zentzu baikor eta positiboan ulertu ohi da. Hitz gutxitan, kaosa desorekarekin lotu den bezala, ordena orekarekin lotu ohi da eta, ondorioz, hitz antagonikoak lirake ezinbestean.

Gauzak horrela, eta binomio biak harremanduko ba-genitu, holako argazki orokorren bat geratuko litzaiguke:

misentropiaren lehendabiziko adierak, entropiari gorrotoak, orekarekin izango luke lotura estua, jarrera misentropiko honek dena bere horretan mantendu nahi baitu, hots, *orekan* eta *ordenan* (oreka eta ordena jakin batean); eta, horrenbestez, entropia edo aldaketa oro kaotiko gisa agertuko luke. Haatik, misentropiaren lehendabiziko adiera honek kaosarekin ere izan dezake nolabaiteko harremana, ezkutukoagoa den arren, mantendu nahi den araua edo erregela aski kaotikoa baita funtsean (itxurazko ordena). Giza mundua, egun bizi dugun ordena, bere horretan mantendu nahi izatea kaosari edo desorekari jarraitpena eman nahi izatea baita, azken batean. Aldaketarik nahi ez izatea, dena bere horretan mantendu nahi izatea, hots, batzuek ordenatzat duten desoreka. Zer nolako desoreka? Ekonomikoa, soziala, ekologikoa eta abar luze bat. Honetaz guztiaz aurrerago mintzatuko gara.

Bestalde, misentropiaren bigarren adierak, gizakia edo giza mundua irauli edo aldatu nahiak, oreka eta kaosarekin ere izango luke harreman-motaren bat. Batetik, kaosari lotuta dago, lehenengo adierak ez bezala, ikuspegi honek modu kaotiko edo desorekatuan margotzen duelako mundua. Ikuspegi ezkor honen arabera, kaosa eta desoreka dira nagusi eta, horrela jarraituz, denak bere horretan jarraituko balu, galbidea izango genuke zain, hondamendia. Alabaina, badu, bestetik, bigarren adiera honek bestelako harreman positibo eta baikorragoa, orekarekin nolabaiteko lotura, entropia edo aldaketa bilatzen duenean nolabaiteko ordena edo oreka berria aldarrikatzen eta bilatzen duelako. Egun bizi dugun egoera irauli nahi izatearen atzean dagoen xedea oso argia da, ordena egokiago eta justuagoa ezartzea, ez beste ezer.

Aitortu behar dizuet, horrenbestez, lan honek misentropiaren bigarren adierarekin bat egingo duela hurrengo orrietan eta, hortaz, egungo egoera kaotiko eta desorekatuari kritika egin nahi diola. Esan gabe doa, beraz, lan honek bestelako ordenaren baten etorreraren beharra aldarrikatu nahi duela; hots, ikuspegi erabat ezkorra izan arren, oraindik itxaropen txiki-txikiren baten alde egin beharra dagoela, antzua suerta daitekeen arren.

Ez hori bakarrik, estetika hutsagatik bada ere, lan honek izaera kaotikoa du, itxuraz behintzat, bere baitan ordena motaren bat topatzerik dagoen arren. Hau da, lan honek jauziak egingo ditu atzera eta aurrera, erabateko sistematizaziotik urrun, modu kaotiko edo zentzugabeen, beti ere ezkutuko ordena bati jarraituz. Ordena kaotikoa, ala kaos ordenatua, nahi duzuen moduan.

SARRERA

Zirkuluak eta zuzenak

Mitologiak (edo mitologiaren inguruko ikuspegi jakin batek, bederen) ederki adierazten du hasiera hasieratik hemen adierazi nahi dudan harreman bat, kaosa eta ordenaren artekoari dagokiona. Izan ere, oro har, Historia(idatzia)ren aurretiko mitologian kaosak eta ordenak, biek, ohorezko lekua izan dute, ia beti zentzu berean. Zein da zentzu hori? Kaosa gainditutako edo gainditu nahi den kosmos-ikuskerak batekin egon ohi da lotua, sekula gehiago itzuli behar ez duena, ordena ezarri berri den edo ezarri nahi den kosmos-ikuskerak berriarekin loturik dagoen bezala, kosta ahala kosta mantendu beharrekoa. Behin eredu soziokultural berria ezarri denean, kosmos-ikuskerak berria, mitologiaren bitartez eredu berria betierekotu nahi izan da, aurrekaria kaotiko eta beldurgarri gisa agertuz. Kaosari, beraz, ordenak jarraitu behar dio. Kaosa, hitz gutxitan, iluntasunak, munstroek, zorigaitzak, minak eta erabat desatseginak zaizkigun bestelako ezaugarriek definitzen dute. Ordenarekin, noski, ederra den guztia lotu ohi da, garapena eta eboluzioa.

Denborari dagokionez, kaosa zirkuluarekin ohi dago harremandurik, *uroborosa* edo bere buztana haginatzatzen duen sugearen irudiarekin. Sugeak izan ditzakeen zentzu edo esanahietan sartu barik, bai esan dezakegu osatzen duen zirkuluak denboraren ikuspegi zirkularra adierazten duela bederen, betiereko itzuleraren irudi gisa zein gauza

guztien hastapena, elementu positibo eta negatiboen nahasketa bezala. Neumannek adierazi moduan, bigarren adiera baten arabera, *uroborosa* kaosaren zatiezintasuna ere bada, gizataldearen zein gizabanakoaren aniztasunari unitzitatea ematen diona, oreka. Modu batean ala bestean, zenbait arrazoi eta faktorerengatik, sugeak bere buztana haginatzeari utzi eta zuzen jarri zen gutxika.

Historiaren hasierarekin, kosmos-ikuskeraren aldaketarekin, zirkulua apurtu eta denboraren ikuspegi linealari ematen zaio hasiera; ordena (berria) kaosari (ordena zaharrari) gailentzen zaio, aniztasuna apurtu eta ikuspegi bakarra nagusitzen da; hau da, arestian esan bezala, aurrekaria katotiko, beldurgarri eta gaiztotzat hartzen da, ezarritako ordena apurtzeko gai dena bezala eta, ondorioz, sekula berpiztu behar ez den munstroa. Historiaren hasierarekin, gizateriak hasiera eman dio bide zuzen eta baikor bati, garatzeari ekin dio, eta hortaz, ziurtatu behar du ez dela atzera itzuliko. Are gehiago, ez atzera ez bueltaka zirimola batean, aurrera egin behar da beti hobetuz.

Esan bezala, mitologiak aldaketa hauen inguruan argia ematen digu maiz, bai axiomatika bai erresistentziaren aldetik, irabazlea eta galtzailearen eskutik, gehienetan irabazlearen ikuspuntua gailendu delarik. Historikoa lehen-dabiziko hirietan topatu daitezke, horrezkero, lehen-dabiziko adierazleak, Mesopotamiako honako mito honek agertu bezala: “Behin Nammu ireki zen Unibertsoa ager-raziz. Beragandik jaio ziren Zeruko jainkoa zen An (Anu) eta ama lurra zen Ki”.

Kaos anitzari ordena gainjarri zitzaion, beraz, kaosa antolatu eta dena eredu binario batean antolaturik geratu zen (geroago eredu binarioak elementu bakar eta gorenari

lekukoa pasatu behar bazion ere). Mito hauek Egeo osoan hedatu ziren, noski, greziar mitologiak erakutsi bezala. Grezian ere, bertsio ugari dira, jakina denez. Robert Gravesek helarazten digun mito baten arabera, adibidez, Eurinome, gauza guztien jainkosa, Kaosetik sortu zen biluzik. Modu batean edo bestean, hurrengo bertsio hau ezagunagoa zaigu egun: “Kaosetik agertu zen Gea (lurra) eta bes-telako izaki dibinoak (Eros, Tartaro eta Erebo). Gizonen laguntzarik gabe erditu zen Gea Uranoz (zeruaz)”.

Egiptoko mitologian ere antzeko mitoak topa ditza-kegu, erraz asko. Egipto zaharrean ere, beraz, Menfis-en teologiaren zein Ra eguzki-jainkoa Jainko gorena bilakatu aurretik, ordena ezarri aurretik, beste garai bateko kaosaren berri ematen diguten mitoak eratu zituzten. Hauxe duzu adibide bat:

Nun zegoen hasieran. Nun bizitzaren potentzialtasuna bere baitan zuen kaosa zen, lehendabiziko substantzia abstrak-tua, eta ur kaotikoek sinbolizatzen zuten. Iluntasunaz in-guraturik zegoen ozeano hiletik agertu zen ezustean bizitza adimendun demiurgoaren formapean. Nungandik bereizi egiten da demiurgo hitz egiten hasi orduko, eta berehala el-karrizketan hasi ziren biak.

Kaosari jarraitu zion ordenak, hemen ere, demiurgo jainko-arkitektoak dena ordenatu behar baitzuen. Irudi hau ez zen Mediterraneo lurraldeetara murriztu, ordea. Aipatu mito eta kontakizun kosmogonikoak mediterraneo ingurukoak izan arren, elkarren eragina jaso izan de-zaketen arren (edo ez, ikerketa hori ez baita lan honen hel-burua), antzeko kontakizunak topa ditzakegu Afrika

Mendebaldeko lurraldeetan ere. Afrikako Yoruben arabera, adibiderako, hasieran kaosa izan zen, beste behin ere. “Hasieran, mundua itxuragabeko kaosa zen; baina, ez edo zelako kaosa, urtsua eta likidoa baizik. Zeruan, orde, Olorum ahalguztiduna zegoen, jainko guztien artetik bo-teretsuena”.

Afrika ez da salbuespena, Asian ere antzeko mitoak topa baititzakegu. Izan ere, Tibeteko mitologia oparoan bada gaurdaino heldu den holako mitorik, beste mito kosmogonikoen artean egun behe mailakoa den arren. Mito horren arabera, hasieran kaosa izan zen, eta kaos haren baitan zen edo izan zitekeen guztia biltzen zen. Txinan ere, noski, kaosa dago hastapenean:

Hastapenean kaosa zen eta, kaos hartatik, jatorrizko lurrina sortu zen. Yin eta Yang indar kosmikoak lurrin hartatik sortu ziren. Bien arteko elkarreaginagatik eratu zen ezaguna den kosmosa. Zerua lurraren gainean agertu zen, eta biak lotzen zituen mendi mordoan geroago.

Ez ditut hemen adibide guztiak agertuko, gutxi hauek nahikoak iruditzen baitzaizkit esan nahi dudana behar bezala adierazteko; hots, Historia(idatzia)ren hastapenean gizakia dena antolatzen eta sailkatzen hasten den neurrian ezarriz doala ordena jakin bat beste askoren artean; eta, ondorioz, ordena horrekin bat ez datorren guztia kaostzat hartu ohi dela, ordena egokiaren suntsiketatzat, edo arrisku potentzialtzat bederen. Ordenaren izenean, beraz, dagoena dagoen bezala betierekotzeko asmoa baino ez dago (eta ahal den neurrian aurrera eta hobera egin, garatu eta progresatu, ordenaren markotik asko atera barik,

noski). Kaosa gure buru gainean dagoen etengabeko arrisku eta mehatxua omen da, hortaz. Ordena orok, berriaz, kaosa txiki edota anomalia batzuk izan ohi ditu, ordena bera kolokan jar dezaketen anomaliak.

Ordena eta natura

Ordena, esandako guztiarekin, erlatiboa dela baino ezin dezakegu esan, konbentzioa, giza arrazoiak, naturaz edo jainkotiar izaeraz blaiturik etorri ohi zaigun arren. Ordenak, beraz, ez du berezko ezer, eraikuntza soziala baita. Sasoi jakin batean ordena zena, beste sasoi batean kaosa izan zitekeen, ikusi dugun bezala; ondorioz, Foucaultek ondo ikusi zuen bezala, soilik episteme jakin batetik har daitezke egiazat eta baliagarritzat enuntziatu jakin batzuk eta ez beste batzuk garai historiko jakin batean. Epistemea, jakina denez, formazio diskurtsiboa eratzen duten zenbait praktikaren ondorio da eta, hortaz, izaera eta jatorri soziala du ezinbestean. Gauzak horrela, indarrean dagoen epistemeak baino ez du definituko zer den ordena (eta zer den kaosa). Gizakiek erabakitzen dute zein den ordena. Gizakiek eraiki dute eta gizakiek irauli dezakete.

Gilles Deleuzek aldarrikatu bezala, argi dago garai bakoitzak erabakitzen duela zer uzten duen agerian eta zer ez, zer den egokia eta zer ez, zer den ordena eta zer ez. Eta, noski, garaiaz ari garenean, unean uneko instituzioak baino ez gara ari, instituzioak erabakitzen baitu azken batean zein den ordena; hots, Foucaulti jarraituz, estrategia instituzional horiek diskurtsoan ordena bat ekoiztea lortzen dute, ordena zein den definitu ohi dute, zer den normala eta zer ez.

Augék ere agertu zuen bezala, gizarte orok natura edo mundua intelektualki mendean hartzea du eta izan du xede, baina ez ezagutzeko beharra zutelako, nolabaiteko zentzua eman behar ziotelako baizik; eta, horretarako, gizakiaren eta natuaren arteko harremana, gizakiaren irudi jakin bat, asmatu behar izan dute beti (eta, bere irudira Jainko jakin batzuk). Gauzak horrela, gizarte edo kultura bakoitzak bere unibertso sinboliko propioa, adierazpen irudikari propioak, eraikitzen ditu gizarte hori osatzen duten gizabanakoek beren buruak errekonozitu eta beraien arteko ezaugarri komunen inguruan elkarlanean bizi daitezten. Komunitateak ordena ondo definitua behar du lasai bizitzeko; ordena, beraz, esan bezala, beti da sozialki eraikia.

Cornelius Castoriadisek ederki azaldu zuen dinamika hau. Gizarte orok bere mundu propioa sortzen du gizartea bera ere barnean egonik. Ezarketa horrek baino ez du argituko zer den erreala eta zer ez, zerk daukan zentzua eta zerk ez. Gauzak horrela, gizarte oro da munduaren interpretazio bat, eraikuntza bat, mundu baten sorkuntza. Gizarte orok asmatzen eta sortzen ditu bere adierazpen irudikari propioak, hala nola, jainkoak, tabuak, bekatuak, nazioa, estatua edota gizon-emakumeak ere bai, Castoriadis-en aburuz.

Gizakia gizartean eta gizarterako baino ez da bizi, eta gizartea beti da historikoa. Gizartea berez forma bat da, eta gizarte bakoitza forma partikular eta singularra da. Formak antolakuntza esan nahi du, beste hitz batzuetan, ordena. Zerk mantentzen du gizartea baturik? Zerk ahalbidetzen du gizarte forma berrien agerkundea?

Lehenago ere aipatu dut, instituzioak mantentzen du gizartea baturik, ordenaturik, Castoriadis-en arabera. Instituzioen helburua, azken batean, Nietzschek berak ere esan zuen bezala, instituzioan itsu sinetsiko duten aleen ekoizpena ahalbidetzea baita, ordenak bere horretan jarrai dezan. Foucaultek ere ikusi zuen, ildo beretik, boterearen sistema juridikoek gizabanako jakin batzuk ekoizten dituela ordena mantentzearren. Horixe omen zen, Foucaulten ustez, instituzio edo boterearen logika: “Garai ezberdin bakoitzean egoerara egokitzen den gizaki-mota eratu da”.

Hona hemen, Castoriadis-en hitzetan, zirkulu primitiboaren nondik norakoa. Gizarte oro da gizabanako historiko mota jakin baten sorkuntza; eta, aldi berean, gizarteak berak ekoizten ditu seriean tipo edo estereotipo jakin hori eredu izanik etorkizunean beharrezkoak izango diren aleak. Azken batean, historia sorkuntza da, giza-bizitza-formen sorkuntza, forma historiko-sozialak ez baitaude lege natural edo historikoek determinaturik. Gauzak horrela, gizartea forma bat da, ordena jakin bat, eta gizarte bakoitza, hortaz, forma edo ordena partikular eta singularra da ezinbestean. Jarraitzen du Castoriadisek:

Arauekin bat eginez, instituzioak gizabanakoak ekoizten ditu, zeintzuk instituzioa erreproduzitzeko gai izateaz gain berau erreproduzitzera beharturik dauden. Legeak elementuak ekoizten ditu hauen funtzionamenduak legea erreproduzitu eta betierekatzeko moduan. [...] Gizarteko Instituzioa instituzio partikular anitzez egina dago. Hauek zentzuzko osotasuna eratzen dute eta zentzuzko osotasuna gisa funtzionatu ohi dute.

Gizartea auto-sorkuntza da, beraz, gizabanakoek beren adierazpenekin sortzen dituztelako gizarteak, ondoren gizarteak berak bere ordena erreproduzitzera behartzen dituen gizabanakoak ekoizteko. Legearen bidez, gizarteak nahi dituen osagaiak sortzen ditu azken hauek lege hori erreproduzitu eta betierekotu dezaten, horrela, gizartearen instituzio partikularrek osotasun zentzudun gisa joka dezaten. Instituzioak soilik iraun dezake, baldin eta berak sorturiko gizabanakoek existentzia ahalbidetzen badute. Adierazpenen sorrera, Castoriadis-en arabera, sorkuntza eta auto-sorkuntza dira: gizartearen jatorria gizartea bera da.

Gizarte oro munduaren interpretazio-sistema bat da. Gizarte oro eraikuntza bat da, eraketa bat, mundu baten sorkuntza, bere mundu propioarena. Eta horixe bera da interpretazio-sistema horren aurkako atake oro hil ala biziko arriskutzat hartzearen arrazoia; bere nortasunaren aurkako ataketzat hartzen du, bere buruaren aurkakoa.

Hori da, beraz, ordena. Interpretazio-sistema bat, babestu beharreko sistema bat. Horrexegatik, sistemaren edo ordena horren aurkako atake oro kaotikotzat hartu izan ohi da, ordena hankaz gora jar dezakeen atakea bezala. Horrenbestez, ordena, zentzu honetan, gizarteak ezarritako forma soziala da, mundu edo interpretazio jakin bat; kaosa, berriz, ordena hori kolokan jar dezakeen oro.

Antzina, eredu natural edo jainkotiarren bat sozialki erreproduzitzen zela pentsatu zezaketen arren, esan dut jada, gizartea eraikuntza soziala da beti. Ez omen da berdin gertatzen, zientzia natural edo enpirikoen arabera, natura-

rekin, naturak bai agertzen omen baitu kaosa edo ordenarako *joera* konkretu bat. Adibideak anitz dira: Darwinen eboluzioaren teoria, fisika newtondarra eta beste abar luze bat. Kulturak joerarik antzeman daitekeen arren, beti dira gizakiek ahalbidetu edo sorturikoak; naturan, berriz, *berrezkoa* omen da joera. Feyerabendek ederki azaltzen du esaldi bakar batean hemen esan nahi dena: “Arau absolutuak zeruan izango dira, ez lur honetan bere errealitate-eredu ezberdinekin”.

Arazoa, noski, sortzen da joera biek, kulturalak eta naturalak, bat egiten ez dutenean, antagonikoak direnean. Egungo ordena biek, adibiderako, bateraezinak dirudite, kulturak aurrera egin ahala naturak atzera egiten baitu; egungo kulturaren joerari jarraitzen diogun neurri berean ari gara naturaren joeraren aurka; hots, gure garapen kulturalak arriskuan jartzen du mundua bera, natura, naturaren beraren joera etengabe oztopatzen ari denean.

Badirudi, gizartea auto-sorkuntza izateaz gain, auto-suntsipena ere badela, beraz, ordena soziokulturalaren bertierekotzearekin batera gizartea bera amildegira eramaten ari garela ezinbestean. Hots, gizarteak zentzu kulturalan ordenarekiko joerarik ez duen bezala, zentzu naturalean esan dezakegu kaoserako joera agertzen duela. Are gehiago, nik esango nuke zentzu kulturalan ere kaoserako joera dagoela esaterik badagoela. Zergatik? Lehenik eta behin, ares-tian esan bezala, ordena eufemismoa baino ez delako, ordenaren atzean kaosa eta desoreka ezkututzen delako. Boteredunen edota instituzioen oreka edo ordenak gizakien arteko desoreka edota kaosa dakarrelako, azken batean. Bestela esanda, egungo sistemak, ordenak, bakan bazuei baino ez diela mesede egiten, bitartean gizateriaren

gehiengoaren aurka egiten duenean. Ordena deitzen duten hori, beraz, kaosa baino ezin da izan, ondo antolatu eta diseinaturiko kaosa, ordea. Gure gizarteen edo munduen ordena gutxi batzuen esku dagoen bitartean, desoreka izango da beti nagusi.

Ba ote dago buelta ematerik? Entropia edo aldaketa gauzatzerik? Zaila da baikorra izatea egun...

Baikortasuna eta ezkortasuna

Egungo kaoserako joera honetan entropiak (orekak) behera egiten duen neurrian, egiten du gora misantropiak. Zenbat eta desoreka handiagoa izan gizaki eta gizarteen artean, orduan eta handiagoa da gizarte eta gizakiekiko gorrotoa. Lurrean, zein gure espeziean, orekarik balego, entropia edo oreka bere maximoan balego, filantropia litzateke nagusi, gizaki eta gizarteen alde argitsua nabarmenduko baikenuke; kontrara, Lurrean zein espeziean kaosa erabatekoa balitz eta entropia bere minimoan balego, misantropia litzateke nagusi, jada Jainkoak erantzule izateari utzi baitio. Orekarik ez dagoenean nabarmentzen dira (eskubide) ezberdintasunak, eta ezberdintasunek (mailaketak) sortzen dituzte liskarrak. Liskarrak daudenean, jakina denez, gizakiak bere gizatasuna erantsi eta ikaragarriak diren ekintza misantropikoak egiten ditu. Oreka balego, berriz, indarrak orekaturik leudeke eta desberdintasunak azalekoak baino ez lirateke izango, filantropiari bidea irekiz, maitasunari. Egun, ordea, maitasunak garai txarrak bizi ditu; eta filantropia ametsa bilakatu da. Berdintasunik gabe ezinezkoa da oreka, filantropia.

Egun kaoserako joera bizi dugu, desoreka, zaurgarritasuna eta beldurrak harrapatuak, ordenaren eta kaosaren artean lebitatzen bizi gara. Egoera honen aurrean, noski, gizaki guztiek ez dute berdin jokatzeko, egoerari aurpegia emateko modu ezberdinak baitaude. Zentzu batean, geroari dagokionez, hiru talde nagusitan (eta oso orokorretan) bereizi ditzakegu: batetik, *baikorrek*, egoerari buelta emango zaiola uste dutenak, *fededunak*. Jainkoak, zientzia zein Gaia berari esker izan, modu batean edo bestean, gizateria ez dela desagertuko uste dutenak. Oraindik ere salbazioan fede dutenak; bestetik, *ezkorragoak* daude, egoerak itzulerarik ez duela uste dutenak, gure patua hondamendia eta heriotza dela aldarrikatzen dutenak. Salbazioan fedea galdu dute, ez dago inolako salbaziorik. Eta, azkenik, honi guztiari garrantzirik ematen ez diotenak, bizitzera eta gozatzera dedikatuak daudenak. Sailkapenak, berriz, eta jakina denez, ez dira beti horren argiak, azpitalde ugari egon baitaitezke. Pertsona bera ere batetik bestera pasa daiteke erraztasun eta bizkortasun handiz.

Modu batean edo bestean, batzuk, baikorrek, filantropo zintzo gisa agertzen zaizkigu, gizakiaren salbazioan sinesten baitute, bere sakonenean duen gizatasun jainkotiarren edo betebeharraren boterean. Edozer gauza egin beharko litzateke gure espeziea salbatzeko, eta egingo da, egin baitaiteke: *lortuko dugu!* Beste batzuk, ezkorrek, misantropo gisa agertzen zaizkigu, maila ezberdinetan bada ere, beraien ustetan ez baitago gizateria salbatzeko modurik, beharbada arrazoirik ere ez. Mutur batean daude gizateriak salbaziorik ez duela sinesten dutenak, misantropia kritika sozial gisa ulertzen dutenak; eta bestean, salbaziorik izan behar ez duela aldarrikatzen dutenak,

halabeharrez desagertu beharko lukeela sinesten dutenak. Modu batean zein bestean izan, misantropoen ustetan gizatasun ankerra da egoera kaotikoaren erantzulea, salbaziorik ez duen gizatasuna; edo beharbada kultura okzidentalara bera; edo biak, auskalo. Azkenak, baikor eta ezkorren artean, bestelako fantasiatzko munduetan bizi dira ezkutaturik. Batzuk, errealtate gordinari aurre egin ezinik bizi direlako, gauzak diren moduan ikusi nahi ez eta beraien munduetan ezkututzen direlako; besteek, berriz, beste errealtate bat bizi dute, beraien oasi pribilegiadun eta isolatuetan bizi direlako, goialdean, beheko errealtatetik oso urrun.

MisEntropia eta misAntropia

Bada, aipatuaz gain, egin beharreko bestelako bereizketa bat, misentropia guztiak ez baitira berdinak. Zentzu honetan, eta buelta handirik eman gabe, misentropiaren bi aurpegi ezberdin nabarmendu beharko genituzke, biak ala biak zinismoari lotuak, *txakur* izaerari. Hel diezaiogun, beraz, Sloterdijki gauzak hobeto ulertze aldera, berak egin baitzuen zinismoaren inguruko analogoa den bereizketa bat.

Sloterdijkek *quinismoaren* inbertsioaren berri ematen digu, zeinen arabera *kinismoa* eta *zinismoa* topatzen dira aurrez aurre. Jatorrizko *kinismo* oldarkorra idealismoaren kontrako antitesi herritar gisa agertu bazen, *zinismo* modernoa ere idealismoaren antitesi gisa agertzen zaigu, idealismoa bera ideologia eta maskarada gisa, ordea. Diogenesen *kinismo* hura, Alexander Handiari barre egiten zion *kinismoa*, Davidengan pertsonifikatua, behealdean dagoen botere gisa; zinismo modernoa, berriz, Goliat guztiek

osatzen dute, Davidi behealdea eta goialdea zeintzuk diren argitzen diotenak, mailaketa eta ordenaren zaintzaileak. Horiek dira, Sloterdijken arabera, aski ezagunak zaizkigun bi posizioak.

Lotsagabekeriak bi posizio ditu: goia eta behea, prepotentzia eta kontrapotentzia; modu tradizionalen adierazita: jauna eta morroia. Antzinako kinismoa oposiziotik hasi argumentuen prozesua, behealdetik datorren botereak gidaturik.

Modu analogoan esan daiteke, misentropiak ere bi aurpegi bereizi dituela: behekoa eta goikoa. Arestian esaten genuen neologismoa polisemikoa zela, definizio ugari izan zitzaizkela. Haatik, eta oro har, bi aurpegi bereizi daitezke nagusiki, misentropiaren bi definizio nagusi. Alde batetik, aurpegi ilunari dagokionez, misentropiak entropiarekiko gorrotoa adierazi dezake, non entropiak bi zentzu nagusi hartu ditzakeen, aldaketa eta oreka. Misentropiaren alde iluna, ondorioz, gauzak bere horretan mantentzeko grina da, aldaketarik eta orekarik nahi ez izatea. Beste alde batetik, neologismoak hitz-joko gisa ere funtziona dezake, arestian esan bezala. Aurpegia argitsua, hortaz, misantropia eta entropiaren arteko jolasa da, zeinen arabera misentropiak zentzu biak bilduko lituzkeen; hots, Gizakiarekiko gorrotoa eta aldaketaren beharra. Gauzak horrela, oso posiblea litzateke, analogia muturrera eramanez, misentropiaren aurpegi biak Sloterdijkek bereizitako zinismo biekkin (kinismoa eta zinismoa) berdintzea.

Bereizketa nabaria izan dadin, horrenbestez, *kinismo* eta *zinismo*arekin egin bezala, *misEntropia* erabiliko dugu

hemendik aurrera jarrera zinikoa adierazteko, antzinako *kinismoa* adierazteko *misAntropia* erabiliko dugularik. Gauzak horrela, misentropia goiko boterea litzateke, misantropiak behekoa adieraziko lukeen bezala. Misantropoak dugu David, misentropoak Goliat. Misentropiak adieraziko luke, beraz, aipatu lehendabiziko definizioa, dena bere horretan mantendu nahia; misantropia utziko genuke, hortaz, bigarren definiziorako, gizakiaz gogaiturik dena aldatzeko nahia.

Misentropia, beraz, zinismoarekin gertatu bezala, lotsagabekeria hutsa da; baina ez edozelako lotsagabekeria, bandoz aldatu den lotsagabekeria baizik. Misentropiak Estatuaren alde erabili ohi du lotsagabekeria, dena bere horretan mantentzeko behar beste itxura eginez; edo ez. Berdin du itxurak irentsezinak badira, misentropia erabat lotsagabea baita berez. Goiko boterea adierazten du, eta ez du zertan zintzo eta garden agertu (ez beti, bederen). Bide zuzenari heldu diola aldarrikatu arren, egungo misentropiak, oligarkia ekonomiko eta politikoen eskutik, beren interesen alde baino ez du egiten lotsagabekeria guztiarekin. Misentropoak *misanthropo patologikoaren* eran ari ohi da, bere ekintzekin gizakia gorroto duela erakusten baitu, zinismo guztiarekin filantropo gisa agertu arren. Bere onuran baino ez du pentsatzen eta, bere gizatasuna erantsiz, animalia biluztu horien aurka zuzendu ohi da bestelako ondorioetan pentsatu barik. Argi eta garbi uzten dio misantropoari non dagoen goialdea eta non behealdea. Misentropoak, beraz, Slotedijken hitzean, ziniko hutsa da, ezkutuan dagoen agente bikoitza, sekula ezin baita jakin zein aldetan borrokatzen ari den.

Zinismoa jakintzaren subjektuaren hedapenak lagundurik doa, egungo sistema-serbidoreak eskumako eskuarekin egin dezakeelarik ezkerreko eskuak sekula utziko ez liokeena. Goizean kolonizatzaile, arratsaldean kolonizatu; lanbidez esplotatzaile eta administrari, aisialdian esplotatu eta kudeatua.

Misanthropia antipodetan dago, ordea, ez baitu inondik inora dena bere horretan mantendu nahi. Misanthropoak ez du bere garaia gogoko, oso kritikoa da bere gizar-tearekin, Gizakia eta Gizatasunarekin, baita goialdekoekin ere; ordenarekin, azken batean. Alabaina, misentropoek ezkortasuna hedatu arren, aldaketa oro antzua dela sine-tsarazten saiatzen badira ere, misantropiak ere badu boterea nahikoa ausardiaz eta lotsagabekeriak misentropiari aurre egiteko. *Kinikoa* bezala, behealdean egonik ere, buruaskitasuna aldarrikatu eta aldaketaren alde saiatuko da. Misanthropoak, ondorioz, *kinikoak* bezala, badaki non dagoen, zein den bere lekua, eta noren aurka altxatu behar duen. Misanthropoak Goliat garaitu nahi du, ez baitio beldurrik. Pailazo eta eroen ordezkaria den misantropoak, gizatasuna hankaz gora jartzen duen horrek, ausardia eta lotsagabekeria guztiarekin egingo dio aurre patu ilunari. Davidek Goliati esan zion bezala, misantropoak halaxe esango dio misentropoari: “Hurbildu zaitez gehiago hobeto jo diezazudan”.

Garai honetan zeinetan gizakiak bere kasa moldatzen eta suntsitzen duen natura, garai hipermoderno honetan zeinetan jada ez dagoen zeri heldu eta den-dena geratu den zalantzapean, denok bizi dugu misentropoek diseinaturiko sistema-engranaje gisa, misentropoek margoturiko

antzeztoki ideal honetan, ordenan. Hala ere, idealak jada ez du inor engainatzen, azpijokoa agerian geratu da eta oligarka misentropikoek ez dute zertan ezkutatu, lotsagabe zinikoak baitira. Jada bizi dugun hau munduetan hobere-rena dela sinestea zaila egiten zaigun garai honetan, dago-eneko hobetzerik ez dagoelako ideia sarrarazi digute burmuinean, entropia edo eraldaketarako saiakera oro antzua bilakatuz. Utopia hil da, antza. Azpijoko misentropoa, Sloterdijkek igarri bezala, argia da: etengabeko krisian bizi-ziarazi, etengabeko mesfidantza eta zaurgarritasunean, gi-zabanakoek babesa bilatu dezaten goiko ziniko misentropoengan.

Urbanizazioak, motorizazioak, elektrifikazioak eta informatizazioak bizitza gizartean eraldatu duten bezala, hausnarketa eta kritikaren lanak ere kontzientziak eraldatu ditu estrukturalki konstituzio dinamiko berria eskainiz. Jada ez dago ezer finkorik. Lur intelektual eta psikiko mugikorra sortu dute zeinen gainean jada tradizioa, nortasuna eta izaeraren eredu zaharrak ez diren posibleak. Ondorioak modernitateko nahaspilari batu zaizkio, zeinetan bizitza babesgabe sentitzen den, krisi-serie jarrai batean.

Argi dago: gizakien arteko desorekak gero eta handiagoak dira, kaosa geroz eta handiagoa, geroz eta pairuga-beagoa desertua; hondamendi eta gerra handi ezberdin askoren mehatxupean bizi gara. Ba ote dago zer edo zer egiterik?